



Europako
Batzordea

EUROPAKO SUSPERTZE-PLANAREN FINANTZAKETA

#EUBudget #EUSolidarity #StrongerTogether

2020ko maiatzaren 27a

1 Suspertze-planaren finantzaketa

Behar diren inbertsioak finantzatzeko, Batzordeak finantza-merkatuetako obligazioak jaulkiko ditu, EBren izenean.

Jesapenak ahalbidetzeko, baliabide propioen sistemari buruzko Erabakia aldatuko du Batzordeak, eta maniobra-marjina areagotuko. Maniobra-marjina, zehazki, honako hau da: epe luzerako aurrekontuko baliabide propioen gehieneko mugaren (hots, Batasunak, bere gastuak finantzatzeko, estatu kideei eska diezazkiekeen funtsen gehieneko zenbatekoaren) eta benetako gastuaren arteko aldea.

Maniobra-marjina hori bermetzat hartuta, Batzordeak merkatuan lortuko ditu funtsak, eta **Next Generation EU** ekimenaren bitartez bideratuko ditu kalte ekonomiko eta sozialak konpontzeko eta etorkizun hobearen prestatzeko programetara.

Batzordeak jesapenak hartuko ditu, gehienez ere 750.000 milioi eurotan, horietatik gehienak 2020-2024 aldian kontzentratuta, eta:

- **programa berri edo indartuetako** batera bideratuko ditu funtsak, edo Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren dirulaguntzaren osagaia finantzatuko du, edo
- **maileguak emango dizkie hala behar duten estatu kideei**, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismo berriaren esparruan, jatorrizko jaulkipenaren baldintzei jarraikiz (kupoi bera, epemuga berdina eta zenbateko izendun bera). Hartara, estatu kideek zeharka hartuko dituzte jesapenak, baldintza oso onuragarrietan, eta, beraz, hainbat abantaila izango dituzte: EBren kreditu-kalifikazio altua, batetik, eta hainbat estatu kiderekin alderatuta nahiko baxuak diren zor-tasak, bestetik.

Jaulkipenen epemuga, bolumena eta egutegia ezartzean, **abantailarik onuragarrienak** lortu beharko dira EBrentzat eta bere estatu kideentzat.



Batzordeak merkatuetako obligazioak jaulkiko ditu, EBren izenean

Epemuga aldarorra (hiru urtetik hogeita hamarrera)

Urte anitzeko finantza-esparruko tresna berrietara edo urte anitzeko finantza-esparruko programen (programa berrituen) zuzkidura osagarrietara bideratuko dira sarrerak, dirulaguntza edo aurrekontu-berme gisa.

Diru-sarrera horietan oinarrituta maileguak emango dizkie Batzordeak EBko herrialdeei, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan, beren erreforma- eta erresilientzia-planak finantzatzeko, Seihiako Europarrear ezarritako helburuekin bat. Horren barruan sartuko dira trantsizio ekologiko eta digitalak, estatu kideen klimaren eta energiaren gaineko plan nazionalak eta bidezko trantsiziorako planak.

Iturria: Europako Batzordea


Bildutako funtsak 2027 ostean itzuliko dira, eta, gehienez ere, 2058an, EBren etorkizuneko aurrekontuen kontura. Estatu kide mailegu-hartzaileek itzuliko dituzte maileguak. Merkatuetatik eratorritako finantzaketa itzultzea errazteko eta aurrekontu nazionalen gaineko presioa murrizten laguntzeko, Batzordeak baliabide propio osagarri berriak proposatuko ditu, 2018an proposatutakoez gain, 2021-2027 finantza-aldiko hurrengo fase batean.

2 Jaulkipena nola kudeatuko da?

Marjina nahikoa dela bermatzeko, baliabide propioen sistemari buruzko Erabakia aldatzeko proposatzen du Batzordeak. Testu juridiko horretan, izan ere, EBren aurrekontua finantzatzeko baldintzak ezartzen dira jesapenak ahalbidetzeko eta baliabide propioen gehieneko muga ehuneko 0,6 areagotzeko, salbuespenez eta behin-behinean. Igoera horrek baliabide propio iraunkorren gehieneko muga osatuko du; hau da, Errenta Nazional Gordinaren % 1,4, horixe baita ziurgabetasun ekonomikoaren eta Brexitaren ondorioz proposatutakoa.

Baliabide propioen gehieneko mugak zehazten du urte jakin batean EBko gastuak finantzatzeko estatu kideei eskatu dakiekeen baliabideen gehieneko zenbatekoa. Epe luzeko aurrekontuaren kargura egin daitezkeen **ordainketen gehieneko muga**, zehazki, aurrekontuaren kargura ordaindu daitezkeen gehieneko zenbatekoa da. Bien arteko aldeak (beste diru-sarrera batzuen zenbatekoak gehituta —esaterako, EBko langileen soldaten gaineko zergenak eta eskumenen gaineko isunenak—) osatzen du **maniobra-marjina**. Batzordeak marjina hori baliatuko du jesapena bermatzeko. Funts guztiak itzuli direnean eta pasibo guztiak azkendu direnean amaituko da baliabide propioen gehieneko mugaren igoera.

Maniobra-marjina handiago horrek inbertitzaileei erakutsiko die, hain zuzen ere, EBko aurrekontuak bete egin dezakeela zorra itzultzeko betebeharra, inguruabarrak zernahi direla ere. Hala, jesapenaren kostuak ahalik eta mailarik baxuenean mantenduko ditu EBk, eta estatu kideek ez dute zertan ekarpen osagarri berehalakorik egin beharrik izango epe luzerako aurrekontuan.



2020ko krisiaren ondoriozko berehalako beharriaren finantzaketa


Estatu kide guztiek berretsi beharko dute baliabide propioen sistemari buruzko Erabaki aldatua, beren konstituzio-arauen arabera. Bien bitartean, epe luzerako egungo aurrekontua berrikusteko proposatu du Batzordeak, 2020an gastu-maila handitzea zilegi izan dadin. 11.500 milioi euro egongo dira eskuragarri, beharriaren gehien daukaten eskualdeei laguntzeko (REACTE-EB bidez), EBko enpresa bideragarrien kapitala indartzeko (kaudimena babesteko tresna) eta EBko mugetatik kanpo laguntza behar dutenei babesa emateko, esaterako Mendebaldeko Balkanetan (Garapen Jasangarrirako Europako Funtsaren bidez).


3 EBko aurrekontuko diru-sarrereren iturriak


LEBko aurrekontuko diru-sarrereren iturriak ez dira aldatu azken hamarkadetan; honako hauek dira, zehazki: aduana-eskubideak eta estatu kideen kontribuzioak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) eta Errenta Nazional Gordinaren (ENG) oinarriaren gainean.


2018ko maiatzean, finantzaketa-iturri horiek **mantendu** eta sinpletzea proposatu zuen Batzordeak. Gainera, diru-sarrereren iturriak baliabide propio berriekin dibertsifikatzea proposatu zuen, EBren lehentasunak lortzen laguntzeko (klima-aldaketa, ekonomia zirkularra eta zerga-ekitatea). Proposamen horiek mahai gainean daude oraindik ere.

Baliabide propio berri horiek 2021-2027 finantza-aldiko ondorengo fase batera gehitu ahalko lirateke:

 Itsasoko eta abiazioko sektoreetarako isuri-eskubideen merkataritza-arabidean oinarritutako baliabide propioen igoera: urtean 10.000 milioi euro sortuko lituzke.

 Karbono-isuriak doitzeko mekanismoa muga: urtean 5.000-14.000 milioi euro bilduko lirateke.

 Enpresen eragiketetan oinarritutako baliabide propioak, EBko merkatu bakarretik onura izugarriak eskuratzen dituztenak: beren diseinuaren arabera, urtean 10.000 milioi euro sortu ahalko lituzkete.

 Urtean 750 milioi eurotik gorako negozio-bolumena duten enpresen gaineko zerga digitala: urtean 1.300 milioi euro sortu ahalko lituzke.

Baliabide propio horiek guztiek batera lagundu lezakete Next Generation EUren esparruan merkatuan lortutako **funtsak itzuliko direla bermatzen**, dagozkien interesekin batera.

Egungo inguruabarrak kontuan hartuta, murrizketen **ezabapena** hasieran aurreikusitakoa baino **mailakatuagoa izateko** ahalegina egingo du Batzordeak.



© Europar Batasuna, 2020

Agiri hau berrerabiltzea zilegi izango da, baldin eta iturria behar bezala identifikatuta badago eta edozein aldaketa adierazten bada (Creative Commons lizentzia, Nazioarteko 4.0 Aitorpena). EBren jabetzakoak ez diren elementuak erabili edo erreproduzitzeko, beharrezkoa izan daiteke eskubideen titularrei zuzenean baimena eskatu behar izatea.

Irudi guztiak dira © Europar Batasuna, kontrakorik adierazi ezean. Ikurrak © Flaticon (eskubide guztiak gordeta).

Argitaraldia: 1.a argitaletxe honetan: 2020ko urria

Ale-kopurua: 170 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia. Lehendakaritza

Internet: www.euskadi.eus

Itzulpena: IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofi ziala)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Donostia-San Sebastián, 1 • 01010 - Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Printhus, S. L.

Lege-gordailua: LG G 00602-2020



LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco